



La vida en juego: ficción climática para pasar a la acción



"Jasangarritasun" faltsuaren aurrean, nola jokatu arlo kolektibotik, sortzailetik eta kulturaletik, etorkizun desiragarriak irudikatzeko eta eraikitzeko.

Eka. 25 - Eka. 26 2025

Kod. G07-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 25 - Eka. 26 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Uda Ikastaro honetan, trantsizio energetikoaren erronketan sakonduko da ikuspegi kritikotik, berde eta jasangarri deitu ohi denaren benetakotasuna zalantzan jarriz, eta hazkundearen alternatiba diren proposamen ekofeministak azalduko dira. Komunikazioan, zabalkundean eta zientzian gailenak diren adituek hartuko dute parte. Gainera, ekintza kolektiboko proposamenak egingo dira gizarte eta komunitate bidezkoagoetara igarotzeko, bai sozialetara, bai ingurumenekoetara.

Ikastaroaren osagai nabarmenetako bat "Fikzio Klimatiko" izeneko dinamika berritzailea izango da. Prozesu sortzaile eta zinematografiko horren bidez, klima krisiak ekar ditzakeen egoerak eta erronkak jorratuko dira.

Helburuak

Etorkizun desiragarriaren narratibak eraikitzen laguntzea, erruduntasun diskurtsoak gaindituz, eta klima- eta gizarte-krisiari lotutako ekoantsietatea gutxituz, aurrean ditugun erronkak beste begirada batetik aztertzen dituzten proposamenen ikuspegitik.

Jasangarritasunari eta trantsizio energetikoari buruzko diskurtso nagusiaren irakurketa kritikoa egitea, planetaren mugak errespetatuko dituen eta pertsona guztien eskubideak ziurtatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial baterantz egiteko bideak esploratuz.

Ezagutza eta talde-lana sustatzea, alderdi ludiko eta kulturaletik ekintza proposamenak eginez, eta ikuspegi sortzailea eta parte-hartzailea sustatuz, klima krisiari irtenbideak bilatzeko.

Antolakuntza



Lankidetzeta



Programa

2025-06-25

09:00 - 09:05	Registro
09:05 - 09:30	Dinámica introductoria
09:30 - 11:00	“Retos de la crisis energética global ¿es verde y justa la transición energética que se plantea?” Antonio Turiel Instituto ciencias del mar - Investigador del CSIC
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 13:30	“Parte 1: Taller de Ficción Climática: creación en equipos de un guión y un cartel de una película CLI-FI con IA” Isidro Jiménez Universidad Complutense de Madrid - Profesor Ciencias de la Información

2025-06-26

09:00 - 09:30	Dinámica participativa
09:30 - 10:45	“Propuestas ecofeministas para superar el crecimiento” Julia Martí Comas Observatorio de la Deuda en la Globalización - investigadora y activista
10:45 - 11:15	Atsedena
11:15 - 13:15	“Parte 2 Ficción Climática: trabajo en grupos, puesta en común y debate” Isidro Jiménez Universidad Complutense de Madrid - Profesor Ciencias de la información
13:15 - 13:30	Itxiera Xabier Martinez Irurozki Mugarik Gabe - Responsable de proyectos de Educación para la Transformación Social

Zuzendaritza



Xabier Martinez Irurozki

MUGARIK GABE, Técnico

Duela hamar urte baino gehiago Mugarik Gabe GGKEko kidea da eta, Bizitza Jasangarrien arloan, garapenerako hezkuntzarekin lotutako lanak egiten digu. Donostian, kontsumo arduratsurako Saretuz sareko kide da eta elikadura zein energia alorretako beste kontsumo kooperatibetako eta elkarteetako kide da. Mondragon Unibertsitatean Humanitateak eta Enpresan Lizentziaduna eta UNEDen Ekintzailatza eta Gizarte Berrikuntzan Unibertsitateko Aditua.



María Teresa Ezquerro Sáenz

MUGARIK GABE, Educación para el desarrollo

Mugarik Gabe nazioarteko elkartasuneko erakundeko kidea da eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako lantaldean eta Bizitza Jasangarriak arloan egiten du lan. Hortik abiatuta, desazkundera, ekofeminismoa, giza eskubideak eta naturaren inguruan hezkuntza-prozesuak sustatzen ditugu eta bizitzaren zein planetaren zaintza erdigunean jartzearen aldeko apustua egiten dugu. Psikologian Lizentziaduna, Gizarte Garapeneko Teknikaria eta Hegoa Institutuko Garapena eta Nazioarteko Lankidetzako Master ofiziala (UPV/EHU).

Irakasleak



María Teresa Ezquerro Sáenz

MUGARIK GABE, Educación para el desarrollo

Mugarik Gabe nazioarteko elkartasuneko erakundeko kidea da eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako lantaldean eta Bizitza Jasangarriak arloan egiten du lan. Hortik abiatuta, desazkundea, ekofeminismoa, giza eskubideak eta naturaren inguruan hezkuntza-prozesuak sustatzen ditugu eta bizitzaren zein planetaren zaintza erdigunean jartzearen aldeko apustua egiten dugu. Psikologian Lizentziaduna, Gizarte Garapeneko Teknikaria eta Hegoa Institutuko Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Master ofiziala (UPV/EHU).



Isidro Jiménez

Arte zuzendaria. Filosofian Lizentziaduna eta Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatean Doktorea. Madrilgo Complutense Unibertsitateko (UCM) Informazio Zientzien Irakasle Laguntzaile Doktorea. MeCCOko (University of Colorado Boulder) eta CECA taldeko (UCM) ikertzailea. CCCCren (Congreso Internacional de Comunicación del Cambio Climático) zuzendarikidea eta Comunicación & Métodos aldizkariaren koordinatzaile akademikoa.



Julia Martí Comas

Júlia Martí Comas Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) Garapenari buruzko Ikasketetan Doktorea da, Observatori del Deute en la Globalització-n ikertzailea eta aktibista ekofeminista. Herri-ondasun eta ekofeminismoak ikertzen ditu, eta Decrecimiento Ecofeminista. Desacelerar para recuperar la vida liburuaren egilea da.



Xabier Martinez Irurozki

MUGARIK GABE, Técnico

Duela hamar urte baino gehiago Mugarik Gabe GGKEko kidea da eta, Bizitza Jasangarrien arloan, garapenerako hezkuntzarekin lotutako lanak egiten ditu. Donostian, kontsumo arduratsurako Saretuz sareko kide da eta elikadura zein energia alorretako beste kontsumo kooperatibetako eta elkarteetako kide da. Mondragon Unibertsitatean Humanitateak eta Enpresan Lizentziaduna eta UNEDen Ekintzailatza eta Gizarte Berrikuntzan Unibertsitateko Aditua.



Antonio Turiel

Antonio Turiel (1970, León), Fisikan Lizentziaduna (1993), Matematikan Lizentziaduna (1994) eta Fisika Teorikoan Doktorea (1998) da, guztiak Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko zientzia-ikertzailea da Institut de Ciències del Mar-en. Nazioarteko zientzia-aldizkarietan argitaratutako 95 zientzia-artikulu baino gehiago idatzi ditu, gehienak ozeanografiari eta ozeanoak kliman eta baliabide naturaletan duen eraginari buruzkoak. The Oil Crash bere blogak 14 milioi orri-ikustaldi baino gehiago ditu eta gazteleraz gure gizarteko jasangarritasun arazoaren, batez ere erregai fosilak agortzearen arazoaren, inguruan erreferentea da. Bere azken dibulgazio-liburuak Petrocalipsis: crisis energética global y cómo (no) la vamos a solucionar eta El Otoño de la Civilización (Juan Borderarekin) dira.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2025-06-25 ARTE

Orokorra

5,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia